

# I

Valdimar Haraldsson naizen nik hogeita zazpi urte nituen aldizkari xume bat argitaratzen hasi nintzenean nire gai kutuna jorratzeko: arraina kontsumitzearen eta eskandinaviar arrazaren nagusitasunaren arteko erlazioa. Danieraz argitaratzen zen, *Fisk og Kultur* zuen izena, eta hogeita urtean hamazazpi liburuki argitaratu ziren. Lehen Mundu Gerran bi urte egon zen kaleratu gabe, eta seigarren eta zazpigarren liburukiak osatu gabe geratu ziren, alegia, bina ale soilek osatuak, patuak kolpe latza jo baitzidan: lehen emaztearen heriotza eta gero, ni ere gaixotu nintzen zortzi hilabetez, 1910eko abuztutik 1911ko udaberria arte. Orduan frogatu zen irakurleek aldizkariarekiko zuten atxikimendua. Urte haietako dokumentazioa arakatuz, ohartu naiz Krakoviako Unibertsitatea eta Kjós Eskualdeko Irakurleen Elkarteak izan zirela harpidetza eten zuten bakarrak. Ez naiz xehetasunetan sartuko gai horri dagokionez, baina interesa dutenei nire liburu bat irakurtzea aholkatuko nieke, *Sardinzar-aditu baten kontakizunak* (Fisk og Kultur arg., Kopenhage, 1933).

Aldizkariako artikulua gehienak hizkuntza arrotzetan zeuden idatzita, ongi bainekien nire ideia gehienak modernoegiak suertatzen zirela, ulertezinak ez zirenean, nire herrikideentzat. Ez baitzekiten zipitzik ere zientzia berriez, eta haietan oinarritzen zen nire teoria, ale bakoitzeko kreditu orrian erreproduzitua:

Gure ustean eskandinaviar arrazak, belaunaldi zenbatzinetan kostaldean arrantzan jardun eta arrainaz zein itsaskiz osatutako dietaz elikatu baita, elikadura mota horri zor dio, beste edozein faktoreri baino gehiago, bere trebetasun fisiko zein intelektuala, eta iparraldeko arraza,

horrexegatik, nagusitu izan zaie, bai langiletasunean bai lorpenetan, itsasoaren aberastasunak zuzenean gozatu ez dituzten beste arraza batzuei.

Liburuki bakoitzeko azken alean urte hartako artikulua eta saiakera onenen laburpen bat eskaintzen zen, nire koinatu batek, György Pázmány psikiatrak, hungarierara itzuliak. Eta ale guztietan zenbait ohar labur sartzen ziren orriak betetzeko, gehienak Kjós nire jaioterriko umorezko kontakizunak eta, tarteka, poema batzuk. Idazki horiek guztiak islandieraz zeuden, eta itzuli gabe uztea hobetsi nuen.

Ulergarria den bezala, *Fisk og Kulture*ko artikulua zientifikoaren egile bakarra izan nintzen luzaro, baina, aldizkariaren hedapena areagotu ahala, gero eta gutun gehiago iristen hasi zitzaizkidan atzeritik; arrainaren kontsumoan interesatutako pertsonenak izaten ziren gehienak, baina eskandinaviar arrazen historian interesatutakoenak ere izaten ziren. Haietako gutxi jabetzen ziren -aldizkariaren zuzendaria bezala- zein estuki txirikordatzen ziren bi ildo haiek. Talde hartan Hermann Jung-Olsen ontzizabe daniarra nabarmentzen zen, nahiko gaztea artean, baina ordurako ere adimen distiratsua agertzen zuena. Ezagutu bezain laster borondate ona eta atxikimendua pizten dituzten gizon horietako bat zen, harremanean sakontzean konfiantza eta begirune bihurtzen direnak. Ez alferrik, Hermann Jung-Olsen gizon lerden eta itxura onekoa baitzen, lanerako grina mugagabea zuen tipo egonezina. Oparotasun giroan hazi zen, baina, haren umetako etxea Kopengageko hotsandikoenetako bat izan arren, arraina gutxienez astean lau aldiz mahairatzen zen bertan, lanegunetan bezala jai handietan ere. Horren arrazoa zen Magnus Jung-Olsen eskola zaharrekoa zela diru kontuetan. Pertsona zorrotza baitzen, egiten zuen guztian presaren etsaia: bere bizitza osoan ez zuen ezer egin aurretik sakon aztertu gabe. Gizon handia, inondik ere.

*Fisk og Kulturen* historia editorialaz mintzatu banaiz, izan da azken alea argitaratu eta zortzi urtera, alajaina, aipatutako Magnus Jung-Olsen ontzizabe handiaren, nire lagun Hermann

zenaren aitaren gutun bat hartu nuelako, zeinean gonbidatu egiten baininduen Jung-Olsen familiaren Kronos itsasontzi enpresaren *M/S Elisabet Jung-Olsen* kargaontzian bidaiatzera. Ontzia eraiki berria zen, eta hura izango zen haren lehen itsasaldia; paper orea garraiatu behar zuen Norvegiatik Izmitera, Turkian, eta handik Potiraino jarraituko zuen, sobietar Georgian, tea kargatzeko. Izan ere, eskualdeko biztanleek tea lantzen baitzuten Kolkidako lautadetan, bai esportaziorako prestatu ere Stalinek eman zizkien te faktoria bikainetan.

Jung-Olsen jaunak gutunean dio bere semeak denbora zera-mala niri opariren bat egin nahian, behin baino gehiagotan aipatu ziola berari, eta ontzizjabe handi aguretuari gogora etorri zitzaiola, Hermannen heriotzaren urteurrena zela-eta, bidali nion dolumin mezua hartu zuenean. Ia lau urte pasa ziren haren heriotza goiztiarretik: gerra amaitu zen egunean erail zuten Vienako garagardotegi batean izandako liskarrean.

Martxoaren amaieran iritsi zitzaidan gutuna, luzaro deprimituta nenbilen garaian (aurreko urteko hil hartan zendu zitzaidan bigarren emaztea), baina une hartan pozez gainezkatu zidan bihotza: pozten ninduen halako abentura batera gonbidatua izanak, pozten ninduen pertsonak oraindik eskuzabalak izan zitezkeela ikusteak, pozten ninduen auzoko nuen Lauritzen alargun txolin samarraren lorategi nimitzoko sagarrondoetako adarrak apaintzen zituzten kimuen edertasunak, errukarriek gorriak ikusi zituzten arren otsaileko ekaitzetan. Baina bai, halako atsegin bizia hartu nuen Magnus Jung-Olsen jaunaren gutuna irakurtzean.

Eta askotan irakurri nuen.

1908an umorezko pasadizo bat argitaratu nuen *Fisk og Kulturen* udaberriko alean. Ez dakit zergatik, baina kontua da gogora etorri zitzaidalda sukaldeko leiho ondoan nengoela, Kopenhagen, artean gutuna eskuan neukala:

Beren txakurrak paseatzera irtendako bi jaun elkartu ziren parke batean. Gazteak berehala erantzi zuen kapela zaharragoaren aurrean, eta hark burua makurtuz erantzun

zion. Baina halako batean gaztearen txakurra askatu eta lasterka abiatu zen katagorri baten atzetik. Gaztea lotsatuta geratu zen eta adinduaren aurrean desenkusatzan saiatu zen, txakurrak ez ziola sekula halakorik egin, ez zela katagorrien atzetik ibiltzen diren horietakoa, gauza benetan ezohikoa zela, ez zela berriz gertatuko, hitza ematen ziola.

Gizon adinduak egonarriz entzun zituen haren desenkusak, eta ondoren burua okertu eta, irribarre ironiatsu batez, esan zuen:

-Gaztea, Squirrelr jaun txikiarekin nahasi bide nauzu, ezta?

Pasadizoa hain zorrotza iruditu zitzaigun Pázmány doktoareari eta niri, non urte hartan bertan hungarieraz argitaratu baikenuen laburpenen atalean.

Baina ez dut uste nire herrikideek ulertuko zutenik.

neure kabuz  
itsastatzen





## II

1949ko apirilaren 10eko goizeko hamaiketan itsasoratu zen Kopenhageko portu libretik *M/S Elisabet Jung-Olsen* kargaontzia Norvegiako Vest-Agderren kokatutako Mold badiarantz. Bi gela handi neuzkan, ontziaren erdialdean kokatuak, aginte zubiaren azpian, ababorrean, eta kanpoko gelara jangelatik sartzen zinen zuzenean. Irudika litezkeen erosotasun guztiak zeuzkan gelak: ohatze bat eta aulkiak, idazmahaia, armairu bat eta liburu apalategiak, denak egikera ezin bikainagokoak. Barne gela bainugela zen, eta bazituen portzelanazko konketa, gelak ahalbidetzen zuen bezain garaia zen ispilua eta bainuontzi sakon bat, lehoi edo herensuge atzaparrak (zaila izaten da bien artean bereiztea) irudikatzen zituzten brontzezko oinekin. Eta bainugelako atzealdean gune zabal bat zegoen, komun moderno batekin. Burutik pasatu zitzaidan interesgarria izango litzatekeela kapitainaren gela ikustea, kontuan hartuta zein logela erosoak eskaintzen zitzaizkien «liberatuei», alegia, eskifaiaren gainetik zeudenei.

Oso pozik nengoen goiz hartan, itsasontzira bidean, nire mesedegilearen kuartier nagusitik pasatu nintzelako esker oneko gutun bat uzteko. Gaua aski aurreratua izan arte egona nintzen buru-belarri gutuna idazten, eta hiru zirriborro idatzi nituen garbira pasatu aurretik: izan ere, nire eskerrona adierazteaz gain, bihotz-bihotzez zoriondu nahi bainuen bertan Magnus Jung-Olsen jauna, haren enpresa sendoaren martxa onagatik.

Idi begiaren ondoan eseri nintzen eta Øresund alderantz zuzendu nuen begirada. Zerua hodeiz estalita zegoen eta ipar haizea zebilen, branka aldean itsaskia sortzen zuena. Noizbehinka sirena jotzen zuten, tarte nahiko handiekin. Aurrean olatuen gandorrak

besterik ez genuen ikusten, apar zuria zipriztintzen han eta hemen, txandaka gora eta behera egiten zuten bitartean. Elur bustia botatzen hasi zen zerutik, eta ikusgaitasuna lausotu egin zen. Begira egon nintzen zerua eta itsasoa bereiztea ezinezkoa izan zen arte; gero oheratu egin nintzen, nekatuta bainengoen bezperan gutuna idazten egindako lanagatik.

Arratsaldeko bostetan jotzeko doitu nuen iratzargailua. Kronos enpresaren ontzietako janariak ospe handia du itsasgizonen munduan, eta Danimarkako erregeak berak ere eskatzen omen dizkie sukaldariak Bere Maiestatearen itsasontziko sukaldaria ondoezik dagoenean.

\*

Kapitainaren mahaian esertzeko adierazi zidaten. Alfredson kapitainak lehen eta bigarren ofizialak, lehen makinista eta kontramaisua aurkeztu zizkidan. Emakume bat ere bazegoen, kontramaisuaren emaztea, suposatu nuen, baina geroago ikasi nuen haien arteko ezkon lotura ez zela batere garbia, eta egokiagoa izango litzatekeela maitale moduan ikustea. Itxuraz, ez nintzen ni bidaiaria hartako «liberatu» bakarra.

Emakume hura batez bestekoa baino txikixeagoa zen, ile argi trinkoa zuen, eta gorputz lodikotea. Beldurra eragiten niola iruditu zitzaidan; izugarri lotsati jokatzeko zuen, behintzat. Begiak zabal-zabalik so egiten zidan irudipena izan nuen, baina gero konturatu nintzen berezkoa zuela keinu hura, zeren eta gure harremana sendotu ahala jabetu nintzen aurpegian behe samar kokatutako begi handiez gain, beheko ezpaina dilindan zeukala, eta aho zabalik geratzen zela nahi gabe esaldien artean. Alemana zen, edo, berak kontatu zidanez, poloniarra familiaz eta heziketaz, edo are lituaniarra ere, baina bere gizonarekin alemanez aritzen zen, behintzat. Daniera pixka bat ulertzen zuen, baina ez zuen hitz egiten, bikoteak urte eta erdi eskas baitzeraman elkarrekin. Une hartan ez zitzaidan bururatu ere egin haren izaeraz edo biografiaz gehiago ikertzea, itsas ibilaldian horretarako aukera franko izango nuelakoan. Kapitainari galdetu nion ea kontramaisuak bidaietan emakumea eramateko ohitura



zuen. Ezetz erantzun zidan. Eta galdetu nionean ea emakumeak zenbat denbora emango zuen ontzian, erantzun zidan bi aukera besterik ez zegoela: Mold badian lurreratzea edo gurekin Izmiteraino jarraitzea, horiek baitziren, nonbait, geldituko ginen lehen bi portuak. Baina garaia iristean ikusiko zela. Ohartarazi beharra dago kontramaisuak berrogeita koska urte zituela. Ez zuen erre letra ongi ahoskatzen, baina atsegina zen eta itxura oneko kontsidera zitekeen, eskuineko begian zuen hodei zurixka gorabehera. Haren maitale atzerritarra hogeitau urte gazteagoa izango zen.

Zazpi pertsona ginen mahai inguruan bilduak, eta eroso geunden kapitainaren mahaira jarrita. Txeratsuk izan ziren denak, eta gogor ahalegindu ziren elkarrekiko lehen otordu hura ahalik eta atsegina gertatu zedin. Niri dagokidanez, ez nintzen guztiz ongi sentitzen arratsaldeko lo-kuluxkaren ondoren; bazirudien matxura bat zegoela nire logelako berokuntzan, berogailuaren giltzari eragin arren hotz-hotza jarraitzen zuelako, giltza gorantz zein beherantz jiratuta ere. Sukaldari alai potoloak afariko menu oso landua aurkeztu eta gero, nire arazoa kontatu nion kapitainari. Baita arratsaldeko hiruretan ikara batez esnatu nintzenean jangelara joan eta zerbitzariari kexatu nintzaiola, mahai-tresnei distira ateratzen ari zen bitartean, eta hark esan zidala ontzi berrietan ez zela harritzekoa matxura txikiak gertatzea, baina ez zuela zertan hala izanik, eta oztopo txiki hura segituan konponduko zutela. Ez zuten ezer egin, ordea, eta une hartan beldur pixka bat nion gauaren etorrerari. Alfredson kapitainak baiezkoa egin zuen buruaz nire hitzak aditzean; ez zuen erantzun, une batez gogoeta egin zuen, eta gero lehen makinistari argibideak eman zizkion arazoaz arduratu zedin. Lehen makinistak mahaikideei desenkusatu egin beharko zutela esan eta altxatu egin zen.

Afaltzeari ekin genion, plater bikainak bata bestearen atzetik. Kronos enpresako sukaldaritzaren ospea ez zen, ez, inolako harrokeria. Baina atentzioa eman zidan zerbitzatu zizkiguten jakietatik bakar bat ere ez izatea arraina. Nire kolkorako pentsatu nuen beharbada kasualitate hutsa izango zela, eta hurrengo lau egune-tan arraina jango genuela, Jung-Olsen familiaren etxean egin ohi

zen moduan. Edonola ere, oso ongi joan zen dena, eta orduak bizkorregi igaro ziren. Nire ezpainenatik pasatu den *ris à l'amande* zoragarriena bukatzen ari ginenean itzuli zen lehen makinista. Esan zuen bere ustez berogailuko hodiak zikinak egongo zirela, fabrikako zikinkeria, seguru asko, eta hirugarren makinistari agindua eman ziola gai urragarriren batez garbitu zitzaizkien. Ez nituen arreta handiz jarraitu matxura konpontzearen zertzeladak; egia esan, gai desegokia iruditzen zitzaizkien mahaietan eztabaidatzeko. Une hartan brandy espainiarra zerbitzatu zuten, eta zigarro daniarrak zur oneko kutxa batean, eta, gaiaz ezer gehiagorik esan gabe, lehen makinistak jakiak dastatzeari ekin zion. Lehorrean ez bezalako legeek agintzen dute itsasoan; hemen gizonek etengabe arduratu behar dute beren ostatuaz, hortxe baitute babesia.

\*

Urte asko ontziratuta eman dituzten itsas gizonek istorio mordo bat dakite, beraiek bizi izandakoak edo beren antzeko beste batzuen ezpainenatik adituak. Batez ere Zeneo izeneko batek -*M/S Elisabet Jung-Olsen*eko bigarren ofiziala bera- ez zuen inolako eragozpenik bere bizitzan gertatutako gauza anitzez hitz egiteko. Eta horixe egiten zuen bere mahaikideen aurrean, haiek entretenitu eta dibertitzeko, baina haien hezibidea ere bazen, Zeneo oso urrutia bidaiatua izanik, beste inork baino gauza gehiago ikusia zelako. Bigarren ofizialak narratzaile berebizikoa izan behar zuela ondorioztatu nuen nire bidelagunetz jabetu zen ikusminetik, eta konturatu nintzen une haren zain zeramatela afari osoa.

Tabakoa ukitu gabe nengoen emaztea hil zitzaizkidanetik, eta halaxe azaldu nion kapitainari, esker txarreko jo ez nintzan, haren zigarro garestiei ezetz esan nienean. Bigarren kopa bat brandy bai, onartu nuen; gero aulkiaren bizkarrean eroso jarri eta Zeneoren itsas istorio bat gozatzeko prestatu nintzen.

Ohitura bat zuen bigarren ofizialak bere narrazioak hasi baino lehen: patrikatik pipiak jotako zur ezpal bat atera eta eskuineko belarriaren ondoan ipintzen zuen, telefono baten entzungailua balitz bezala. Minutu pare batez entzuten zuen ezpala, begiak bilduta,

lo balego bezala, baina betazalen atzean haren begi niniak dar-dar azkarrean ari ziren. Zeneo hizketan aditzen nuen lehen aldia baitzen, irribarre ergela egin nuen haren jokabide zentzugabearen aurrean. Pentsatu nuen pailazo edo mimo saio arrunten baten atarikoa izango zela, eta ingurura begiratu nuen, mahaikideengan antzeko erreakzioak aurkitu nahian. Emakumearen aldetik barretxoren bat ere espero nuen. Baina denak eserita zeuden, isil-isilik, kontakizuna hasteko zain. Kontramaisuaren emakumeak ere liluratuta begiratzen zion bere ezpala entzuten ari zen gizonari. Kolpetik, desagertu egin zitzaidan irribarra aurpegieratik, eta, nahasita, Alfredson kapitainari begiratu nion. Nire hanka sartzea aintzat ez hartzeko adeitasuna erakutsi zidan; ukondoan gainean aurreratuz, ahots isil baina sendoz esan zuen:

-Hortik sortzen da istorioa...

Eta, hitzok esanda, bigarren ofizialak atzera gorde zuen zur puska. Eta bere kontakizunari ekin zion:

-Marinelen bizitzan gauza ugari gerta daitezke, eta arriskuak ez daude soilik itsasoan, portu urrunetan ere egoten dira. Orain gertakari batzuk kontatu nahi nizkizueke, egoera zentzugabe batera eraman baininduten, halako nahigabeak ekarri zizkidana, non bizia galtzeko zorian egon bainintzen.

»Marinel nenbilen *Argo* izeneko itsasontzi batean. Egeo itsasoan geunden, bertara Magnesiako Iolko hiritik iritsiak, eta itsas bidaiia luzea genuen aurrean. Ontzia eraiki berria zen, eta nabigaziorako hornidura onenak zeuzkan, baina kontrako haizeek eta itsas handi ezohikoek norabidea galarazi ziguten gure abenturaren hasieratik bertatik. Lemnos uhartean lehorreratu ginen urez eta janariez hornitzeko, hori baitzen gure plan bakarra, eta horretarako ez genuen egun bat edo bi baino gehiago beharko. Baina azkenean ia hamar hilabete eman genituen uharte hartan.

»Harrigarria iruditu zitzaigun, noski, portuan itsasontzi bakar bat ere ez egotea, eta portuko sarbidean ere ontzirik ez topatzea, baina, lehorrera iristeko irrikatzen baikeunden, horrek ez zuen zuhur jokatzeko moduko susmorik piztu gudan. Kaildea hutsik egoteak ere ez gintuen askorik aztoratu. Gizonek elkarri begiratu